

**ERAKUNDEARTEKO BATZORDEAREN BILERARI
BURUZKO AKTA
2016ko EKAINAREN 9a**

Bertaratuak:

María Ángeles Elorza, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia eta Erakundearteko Batzordeko presidentea

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria

María Guijarro andrea, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz

Juanma Balerdi jauna, Euskal Fondoa eta EUDEL ordezkatzuz

Euken Barreña jauna, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe.

EAEko hiru hiriburuetako ordezkariak ere bertaratu dira, presidenteak gonbidatuta:

Miguel Pérez jauna, Bilboko Udala ordezkatzuz

Aitor Gabilondo, Gasteizko Udala ordezkatzuz

Kokalekua:

Lehendakaritza, Vitoria-Gasteiz

Eguna eta ordua:

2016ko ekainaren 9a, osteguna, 10.00h

2016ko ekainaren 9ko 10:00etan, Erakundearteko Batzordeko presidente Marian Elorza andreak bertaratupei ongi etorria egin die, eta jarraian bilerari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- Informazio-sistema bateratua euskal erakundeentzat garapenerako lankidetzaren alorrean.
- Bestelakoak eta galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA

Bertaratuek aurreko bilkuraren akta onartu dute.

2. INFORMAZIO-SISTEMA BATERATUA EUSKAL ERAKUNDEENTZAT GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREAN

Marian Elorzak azaldu duenez, bilera laburra da, ia-ia puntu bakarrekoa: informazio-sistema bateratua, aurreko bilkuretan ere aztertu dena. Ildo horretan gogora ekarri du, gai horri buruz egin zen azken bileran, teknikariek ziurtagiri baten beharra mahaigaineratu zutela, Erakundearteko Batzordeak gai horri buruz hartutako erabakia jasoko zuena. Ziurtagiri hori baliagarri izan daiteke inplikaturako administrazio bakoitzak, baterako ekimena aurrera eramateko, egin beharreko barne-prozeduretarako.

Jarraian, zenbaitek ekarpen batzuk egin dituzte, bileraren deialdiarekin batera erantsi zen ziurtagiriaren zirriborroa hobetzeko asmoarekin, eta zirriborroa iradokitako aldaketak txertatuta onartzea erabaki da. Hortaz, ziurtagiriaren testua adostu da, eta ekimenaren parte diren erakundeei bidaliko zaie.

Euskal Fondoa ordezkatzeko duen Juanma Balerdik adierazi duenez, litekeena da erakunde batzuek Euskal Fondoaren informazio sistemarentzako dirua kentzea, ekarpen horiek beste proiektu batzuk finantzatzeko erabili behar zirelarik, eta horrek bere zailtasunak ekarriko lituzkeela erantsi du.

Ildo horretan, Paul Ortegak adierazi du, proposamenak aurrerantz daraman erritmoa ikusirik, agian tarte bat izan litekeela 2016ko eta 2017ko aurrekontuen artean finantzatzeko, eta Marian Elorzak iradoki du Euskal Fondoaren Batzarrak informazio-sistema proiektutzat jo lezakeela.

Gasteizko Udala ordezkatzeko duen Aitor Gabilondok adierazi du, normalean urte-hasieran hartzen dela proiektuen gaineko erabakia, eta agian Paul Ortegak planteatutakoaren ildotik jardun litekeela, eta Juanma Balerdi bat etorri da ideia horrekin.

3. BESTELAKOAK ETA GALDE-ESKEAK

Puntu horretan eztabaida bat sortu da, batzordearen aurreko bilkura batzuetan aztertutako beste ekimen baten egoeraren harira: Erdialdeko Amerikako ur eta saneamenduko baterako programa. Paul Ortegak azaldu duenez, inplikaturako erakunde guztiei lankidetzak-akordioaren zirriborro bat bidali zaie, eta programan parte hartzeko prest ote dauden azal dezatela, eta kasuan-kasuan akordioa sinatzeko gaitutako pertsonaren datuak eman ditzatela eskatu zaie.

Juanma Balerdik, berriz, urrats horiek ahalik eta azkarren egin behar direla azpimarratu du.

Aitor Gabilondok adierazi du Euskal Fondoak identifikazio-fasearen lizitazioaren ardura har lezakeela, eta aurreidentifikazioaren ardura hartu zuen pertsona beraren eskutik egitea komeniko litzatekeela.

Marian Elorzak uste du interesgarria litzatekeela Euskal Fondoarekin bilera bat egitea bide horretan aurrera egiteko, baina Juanma Balerdik adierazi du, identifikazioaren lizitazioa nola egin erabaki baino lehen, proiektuan zeinek parte hartuko duen jakin behar dela, hau da, aldeztetik aipaturako urratsei jarraitu behar zaiela.

Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari Maria Guijarro andreak adierazi duenez, komunikazio bat jaso dute bai, baina ez dute erantzuteko modurik izan, bere erakundearen aurrekontu-egoeraren gaineko zehaztasun handiago bat behar duelako.

Azkenean batera erabaki dute egokia litzatekeela proposamenaren finantza-alderdiak lankidetzak-akordioari eranstea, eta berriz ere adierazi dute behar-beharrezkoa dela erakundeek lehenbailehen adieraztea programan parte hartzeko prest dauden edo ez, ekimenarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez gero, presidenteak Erakundearteko Batzordearen bilera amaitutzat eman du, 10:45ean.

M^a ANGELES ELORZA ZUBIRIA

**ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA**

EUKEN BARREÑA CALOCA

**ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA**